



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2007-11-17**

V.URTEA 1.290.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Onena, babarrun koktela

TOLOSA Dicken's tabernako Ainara Egurenek irabazi du Babarrunaren Pintxo Lehiaketa; lehen aldiz aurkeztu da

GAUR Lekale lehiaketa, enkantea, txapela nork hobekien jantzi eta azoka berezia izango dira, besteak beste 2-3



Ainara Eguren pintxo lehiaketako irabazlea erdian. Ezkerrean, Pancho Bedialauneta hirugarrena, eta Ricardo Brozsa eskuinean, bigarrena. I.TERRADILLOS

**Udakiola
baserria
gutziz erre da,
sute baten
ondorioz**

ASTEASU Atzo arratsaldean izan zen; bertan bizi direnek ez zuten kalterik jasan 2

**Carlos Peña
igerilariak
abentura
berriari ekin dio**

TOLOSA Asturiasko Sella ibaiaren jeitsiera egingo du, zazpigarren aldiz, ohiko moduan, bizkarrez igerian 2

**Txintzarri
Eguna
ospatuko dute
bihar Alegian 5**



40
emozio urte

**Jaialdi
berezia**

Usabal kiroldegia (Tolosa)
Abenduak 1, larunbata
Arratsaldeko 7etan

6 € helduak
3 € ikasleak



Laskorain Ikastola



Pintxo lehiaketako hainbat une: irabazlea pintxoa prestatzen; irabazleen pintxoak; sarituak, epaimahaiko kideekin; eta azken hauek, pintxoak dastatzen. I. TERRADILLOS/HITZA

BABARRUN KOKTELIK BAI?

Kultura » Babarrun Astearen baitan, ekitaldiekin jarraituz, gaur lekale lehiaketa eta enkantea izango dira, besteak beste; bihar, bazkariak eta afaria

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Babarrun Astearen egun handia da gaurkoa. Hala ere, gaur arte ere izan da zer eginik eta ikusirik herrian. Esaterako, herenegun, Zerkausi merkatuan pintxo lehiaketa izan zen, eta atzo eman zen jakitera irabazlearen izena. Aurtengoan Tolosako nahiz kanpoko sukaldariak hartu dute parte lehiaketan.

Denera 9 izan ziren lehiakideak. Hauek, babarrunaren tradizioa sukaldaritzara modernoarekin uztartzen saiatu ziren. Baina, nola ez, irabazlea Tolosakoa izan zen. Dicke's tabernako Ainara Eguren hain zuzen. Honek koktel moduan aurkeztu zuen bere pintxoak. Bigarren postuan Donostiako Casa Vergara jatetxeko sukaldari den

Ricardo Rozsa geratu zen. Hirugarren postua beriz, Pancho Bediainetarentzat izan zen. Hau Hondarroako Cantabrico jatetxeko sukaldaria da.

Epaimahaia pintxoaren itxura nahiz zaporea hartu zituen kontuan erabakia hartzeko garaian. Hala, denek ere, lehiaketaren maila altua eta sukaldarien lan bikaina nabarmendu zuten. Dena den, beraien esanetan, batzuek ez zuten asmatu osagaien zaporeaknahasteko garaian.

Aipatu bezalagaur izango da Babarrun Asteko egun nagusia, goizean azoka berezia eta lekale lehiaketa egingo dira Triangulo plazan. Lekale hori, enkantean aterako da gero. Lekale irabazlea aukeratu ostean, bihar, babarrun horiekin bazkaria egingo dute ferialekuan. Goiztik. Interesatuak deitu ondoren telefono zenbakira: 669 67 36 49.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Adunan, 70 metro²-ko etxea. 25 metro²-ko atikoarekin. Interesatuak deitu 608 57 59 00ra.

■ **Etxebizitza.** Tolosan, 93 metro²-ko etxea. 3 logela, komuna, sukaldaria eta egongela. 35.000.000 pezeta. Interesatuak deitu 630 58 02 67 telefono zenbakira.

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa. Interesatuak deitu ondoren telefono zenbakira: 669 67 36 49.

LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko emakumea behar da. Telefono zenbakia: 620 6191 02.

Oiartzungo estalada txapelketa herrikoa 2007

TERNUA

Arrixola

hitza

TERRETSU

BELHARRA

OLARTINGO

BEALA

Azaroak 17

Elorsoro polibiroldegian

Izen ematea: 943 49 25 17

Ezwan bertan: Plazá Littara

«Ezusteko handia izan da irabaztea»

AINARA EGUREN » Babarrunaren Pintxo Lehiaketako irabazlea

Kultura » Koktel moduan aurkeztutako pintxoarekin irabazi du aurtengo lehiaketa Ainara Eguren sukaldari gazteak



LT.

E. EZEIZA

Tolosako Dicken's tabernako sukaldaria den Ainara Eguren (Alegia, 1981) irabazi du Babarrunaren Pintxo Lehiaketa. Lehendabiziko aldiz aurkeztu da aurtengoz

lehiaketara eta oso gustura agertu da sariarekin. Gainera, duela denbora gutxi murgildu da sukaldaritzaren munduan.

Zertan datza zure pintxoak?

Koktel moduan aurkezten da. Lehendabizi, babarruna modu arruntean egosten da eta ondoren xehetu. Bestetik, odolkiarekin moussa egiten da eta hau azarekin bildu. Piperra ere badu, eta dena batera, kopa batean aurkezten da.

Nolatan bururatu zitzaizun horrelako pintxo bat egitea?

Proba asko egin eta gero ateratzen nau. Anaia ere sukaldaria da, eta berak asko lagundu dit. Azken batean, kontua probak egitea da, gustuak bilatu arte.

Koktel itxura du, beraz ze garaitan hartzeko pintxo dela esango zenuke pintxo hau?

Pintxo moduan edozein momentutan hartu daitekeela esango nuke. Hala ere, koktel gisa hartzeko ere badenez, bazkal aurretik ere izan daiteke.

Lehendabiziko aldiz aurkeztu

zara aurtengoz, zer moduzko maila zegoela iruditzen zaizu?

Oso altua. Ezusteko handia izan da lehiaketa irabaztea. Ez nuen espero inola ere irabaztea. Sukaldaritzaren munduan urte bat bakarra darat eta ilusio handia egin dit sari honek.

Nola hartzeko pintxoak da?

Epela hartzeko dela esango nuke, hala ere, hotza ere ongi geratzen da.

Dicken's tabernan dastatu ahalko da pintxoak?

Lehen postuan geratu garenez eskainiko dugu pintxoak. Asteburu honetan ahal ditugun guztiak prestatuko ditugu eta aurrera begira, asteen zehar ez, baina asteburuetan prestatuko dugu jendeak dasta dezan.

«Biharkoa ere arrakastua izango da»

KARLA MUJIKA » Gure Kaiola elkartearen presidentea

Kultura » Bihar izango da ferialekuan Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa; Gure Kaiola hasi zen antolatzen duela 21 urte



LT.

I. TERRADILLOS

Karla Mujika (Tolosa, 1963) du urtarrietatik Gure Kaiola elkartearen presidentea. Duela 10 urte egin zen elkartearen bazkide, eta ederki eza-gutuzten du elkartearen historia.

Tolosako hainbat ekintzetan har-

tzen du parte Gure Kaiola elkarteak.

Bai, hala da. Abesbatzak, txotxongiloak, Zumardi jardunaldiak, Tolosa CF... hainbat ekimenetan laguntzen dugu.

Horien artean dago, Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa. Duela 21 urte hasi zineten antolatzen.

Elkarteko lagun talde bat hasi zen pentsatzen gurea den babarrunaren aldeko apustua egin behar zela. Horrela sortu zen lehiaketa. Udal-letxearen eta beste hainbat talde-

ren laguntza handia izan dugu. Babarrunaren izena handitzeko, elkarlean arituz gara Udala, ekoizleen elkarteak, kofradia eta gu besteen artean. Labela ere hor dago.

Nola izan zen lehenengoa?

Lehenengo lehiaketa, duela 21 urtekoa, elkarten bertan izan zen. Han prestatu zituzten babarrunak, eta ondoren, Beotibar pilotalekuan egin zuten bazkaria. Gero, ferialekuan egin izan dugu.

500 lagunetik gora biltzen zarete bazkarian.

Elkarteko kideen artean antola-

tzen dugu egin beharrekoa. Jendea Tolosatik bertatik eta kanpotik ere etortzen da, eta giro bikaina izaten da. Aurtengoz ere arrakastua izango da, ia txartel guztiak baitaude erosita.

Lehiaketarena nola izaten da?

22 sukaldari aritzen dira babarrunak prestatzen. Aurreko eguneko ekoizleen lehiaketa irabazte suertatu den babarruna erabiltzen dute sukaldariak. Gero hori epaitzeko epaimahaia dago. Hor Martin Berasategi sukaldariaren lana eskertu behar dugu, urtero izaten baita.

Duela 21 urte pentsatu al zuten egungora iritsiko zenik lehiaketa?

Ez dut uste. Orain arte egin den lanarengatik dugu oraingoa, eta hor gustien laguntza eskertu behar da.

«Gure kulturaren zati da babarruna»

ROBERTO RUIZ » Fronton jateko sukaldaria

Kultura » Urrezko Domina jaso du lekaleak gehien eta hobekien prestatzeagatik; gaur dastatu ahalko dira bere platerak Zerkausian



LT.

I. TERRADILLOS

Aurtengo Babarrunaren Astea berrikuntzetako bat Zerkausian bihar izango diren bazkaria eta afaria dira. Gastronomiaren Onenaren IX. Batzarraren lankidetzarekin, lekalerik onenak prestatu dituzten eta haietako asko zenbait Michelin izarren jabe diren sukaldariak prestatutako lekale platerak dastatzeko aukera izango da. Roberto Ruiz urrezko domina jaso duen 10 sukaldarietako bat da, eta bihar izango da Zerkausiko bazkarian bere eta beste bederatzirekin platerak probatzeko aukera.

Urrezko domina jaso duzu platerak lekaleak gehien eta hobekien prestatu izanagatik. Zer sentitu duzu?

Oso gustura nago. Sari bat baino

gehiago errekonozimendua da jasotakoa. Babarruna mimitzeagatik, eta bere izena indartzeagatik egindako lanarengatik jasotakoa da.

Zu izan zara sari hau jaso duen 10 sukaldarietako bat.

Nire kasuan, Tolosako babarruna erabiltzeagatik, prestatzeagatik jaso dut. Beste 9 sukaldari daude, horien artean, euskaldunak, eta baita, espainiarrak edota italiarrak

ere. Era guztietako lekale prestatzen dituzte besteek, babarrunak, garbantzuak, dilistak, era askotara, gainera.

Babarrunaren Astea berrikuntze-kin dator aurtengoz. Horietako bat, Zerkausiko bazkaria eta afaria.

Gastronomiaren Onenaren Batzarrekin du zerikusia, izan ere, Tolosan izango du inaugurazioa bihar gaueko afarian, eta horretaz gain, Urrezko Domina jasotako su-

kaldariak prestatu rikoko plateren biharko bazkaria dago.

Babarrun Astea bezalako ekimenekin du babarrunak gaur egun duen lekua.

Hain gurea den babarruna ezagutarazi eta indartzeko asmoz antolatzen dira horrelako ekitaldiak. Gure kulturaren zati da, eta horretatik eman behar zaio duen garrantzia. Lan ona egin dugu guztien artean, ekoizleak, Gure Kaiola bezalako elkarteak, kofradia, sukaldariak, edota komunikabideak besteen artean. Urtetik urtera, babarrunaren inguruan antolatzen diren ekitaldiak gorantz doaz, gero eta arrakasta handiagoa du, he- mengoan eta kanpokoen artean.

Senda Bide
BIOLOGIKOA

- Elikadura • Zeliakoak
- Kirolarentzako nutrizioan adituak
- Benetako "Original Bibi" produktua

San Frantzisko, 19 • 943 655 444
Korreko kalea, 3 • 943 674 140
TOLOSA

Kimetz
denda berria

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu



Espezie bereko bi emek arrautzak jartzeko leku bera aukeratu dute nonbait. Ondoren zer gertatu zen ezin jakin. I. MEZQUITA

Asteartean, Alegiko Azaro Kulturalaren baitan Iñaki Mezquita ikertzaileak burduntziei buruzko hitzaldi bat emango du; atera dituen argazki guztiak Bazurkan, libelularen paradisuari ateratakoak dira

Bazurkako libelulak gertutik

NEREA URBIZU

Burduntziak dira, libelulak: dotoretasunez kolore biziko gorputzak erakusten dituzten animalia hegalaria. Irailera arte Alegian bertan bakarrik Gipuzkoan aurkitu dituzten 36 espeziatik 29 zeuden Bazurka putzuan.

Datorren asteartean Iñaki Mezquita alegiarrak hitzaldi berezi bat emango du Kultur Etxean, Alegiko Azaro Kulturalaren baitan. Aranzadiko ikertzailea da, eta Bazurka putzuan jada ez dagoen bizitzaz hitz egingo du, «galdu den ondare naturalari buruz», hain zuzen.

Tolosatik Alegiara sartzerakotan, obretan dauden inguruan dago Bazurka, errekaaren ondoan. Autobia egin zutenean putzu artifizial bat sortu zen, 5 zatitxotan banatuta, eta euri asko egiten zuenean batean bihurtzen zen. Han ekosistema bat eratu zen, eta burduntzientzat leku aproposa bihurtu zen

nonbait. «Bertan eman ziren baldintzak oso egokiak ziren burduntzientzat, libelulentzat».

Bazurkan putzurik ez

Baina, irailaren hasieran beste leku batzuetatik ekarritako lurrak hasi ziren botatzen Bazurkan, eta hango ekosistema desagertarazi zuten. «Berez libelulek ez dute leku handirik behar bizitzeko, metro karratu gutxi batzuekin nahikoa dute, baina baldintza eta faktore batzuk eman behar dira. Bazurkan, dirudinez, horiek ematen ziren».

Oraindik ez dakite zer egingo duten bertan, «agian berdegune bat...»

Hitzaldia hiru zatitan banatuta

Hitzaldia hiru zatitan banatuko du: lehenik, odonatuen ezaugarriak emango ditu ezagutzera irudi eta informazio bidez. Ondoren, azalpenak eta galderak egiteko au-



Iñaki Mezquita alegiarra. N.U.

tera izango da, eta azkenik, burduntziei (Bazurkan libelulak zeudenean) egindako argazkiak ikusi ahal izango dira.

Libelulak, animalia azkarrak

Iñaki Mezquita Aranzadiko ikertzailea da. 18 urte eman zituen tximeletak bilatzen eta aztertzen, eta





duelabi urte inguru burduntziekin hasi zen. Bere hitzetan, burduntziak «oso azkarrak dira, oldarkorrrak, lurraldekoiak, eta animalia askoren elikadura da, kate trofikoan funtzio garrantzitsua betetzen dute». Ornogabe hauek ura dagoen lekuetan bizi dira eta haragijaleak dira.

30.000 begitxo dago konposatuta haien begi bat. Jan nahi duena 12 metrora antzematen du, hau da: «Gizakiok 2 kilometro eta 400 metro ingurura 18 zentimetroko irudi bat ikusiko bagenu bezala». Beraz, ikusmen oso ona dute animalia hauek. Mezquitak ia mirespena sentitzen du naturak sortutako ingeniari obra hauengatik.

Ordu asko eman ditu argazki kamera gainean hartuta, «agian 200 aldiz joan naiz Bazurkara argazkiak ateratzera», dio Mezquitak. Animalia hauez gehiago jakin nahi duenak, asteartean Kultur Etxera joatea besterik ez du.

» HITZALDIA

- **Gaia.** Bazurkako sorgin-orratzak.
- **Eguna.** Azaroak 20, asteartea.
- **Ordua.** 19:00etan.
- **Lekua.** Iñaxio Begiristain kultur eta kirol etxean.
- **Hizlaria.** Iñaki Mezquita.
- **Argazkilaria.** Iñaki Mezquita.



Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kirolegia
Tolosa Tel.: 943 577573
www.bidebide.es

bidebide
restaurant&bar

villabona
optika

Kale Berria 23A
Villabona
943 11 18 40

Txintzarri Eguna bihar, hil diren abeslarien omenez

Alegia » Txintzarri Txikiren eta Txintzarri Abesbatzaren kontzertuak elizan eskainiko dituzte; gero bazkaria izango dute

ERREDAKZIOA

Urtero legez, aurten ere Txintzarri Eguna ospatuko da Alegian bihar, Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteak antolatuta. Abesbatza urteetan abesten egon diren abeslari hildakoei eskainitako jaia da Txintzarri Eguna.

Kantu eta doinu berriekin datoz aurten. 11:15ean Joan Bataiatzailea deunaren elizan meza nagusian abestuko dute helduen abesbatza-koek.

Ondoren, 12:15ean kontzertua eskainiko dute Txintzarri Txiki eta Txintzarri Abesbatza-koek.

Txikiek kantuan amaitu bezain laster nagusiek hartuko dute lekukoa: era askotako kantuak eskainiko dituzte. Horietako batzuk estreinakoz kantatuko dituzte: Julen Ezkurraren *Aritz adarrean* eta *Kataltin* konposizio bikoitza, *Lau Teiltatu...*

Laguntzaileei eskerrak

Ondoren, 14:30a aldera, bazkari-legea egingo dute Txintzarri jate-txean. Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie urtean zehar elkartearen jarduerara aurrera eramaten laguntzen duten erakunde, herriko elkarte eta herritar guztiei.

Bertsolari Txapelketa finalaren atarian

G puntua » Jexux Mari Irazuk gaur kantatuko du Eskoriatzan 18:00etatik aurrera finalaurreko lehen saioan

ASIERIMAZ

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2007 gaur itzuliko da ohol-tza gainera, asteburu bateko atsedena aldia hartu ondoren. Lehenik sailkapen fasea geratu zen atzean, azaroaren 4ean, Tolosan, azken final-laurdenak jokatu ziren eta geure aurrean finalaurrekoak eta finala besterik ez dira geratzen.

Gaur Eskoriatzan 18:00etan

Hona heltzeko bertsolariak izerdi handiak bota dituzte, gehienek behintzat, baina finalaren atarian, dena dago irabazteko, askorentzat Ilunben (Gipuzkoa) egote hutsa,

txapela jaztearen pareko izango baita.

Asmo horrekin ekingo dio Jexux Mari Irazuk gaur Eskoriatzan (Gipuzkoa) saioari. Kiroldegian 18:00etatik aurrera, larrauldarrekin batera beste bost bertsolari egongo dira; Alberdi, Martin, Agirreazaldegia, Agirre eta Gaztelumendi hain zuzen ere.

Eskualdeko lau final atarian

Finalaurrekoetan, Irazurekin batera Tolosaldeko hiru bertsolari gehiagok kantatuko dute. Amaia Agirre azaroaren 24ean Oiartzunen (Gipuzkoa) egongo da. Eta beste biak, Aitor Mendiluze eta Unai Muñoa Ordizian ariko dira abenduaren lehen.

Orain arteko puntuak ikusita, Iruran bizi den Aitor Mendiluze da lehena, baina puntuak gehitzen ez direnez, hasera berri baten aurrean aurkitzen gara.

Txapak eta kareta egiteko sormen tailerra izango da gaur arratsaldean

Baliarrain » Bihar, berriz, Jubilatuen Eguna izango da eta 1990. urteko bideo bat ikusi ahal izango da kultur gelan

N.URBIZU

Gaur Baliarraingo Kultur Elejira-ren baitan haurrei egingo die te-lekua, tailer erargarriak baitaude kultur gelan. 17:00etan entziero txiki eta pin eta lepokoak egingo dituzte Ani Martinezekin.

Sormen tailerra da tailer hau: eskulanak egiten dituzte eta haurren sormenari egiten zaio lekua. Entziero txikiak haurrek maskarak egingo dituzte kartoiarekin, in-txaurrekin, makilekin... Ondoren, entziero txiki bat egingo dute zezen gurpildunekin. Bigarren atalean pinak, belarritakoak, nahiz trenzak egingo dituzte.

Bihar Jubilatuen Eguna

Bihar Jubilatuen Eguna da; 11:30ean hamaiketako, 12:30ean meza eta ondoren, 13:15ean, bideo emanaldia kultur gelan prestatu dute. Baliarraingo 1990eko azoka ikusteko aukera izango da.

14:15ean bazkaltzerakoango dira Zartagi jatetxera.

San Gregorio eguna ospatuko dute gaur Albizturren, ermita ondoan

ERREDAKZIOA

Gaur San Gregorio eguna Albizturren ospatuko dute. Iluntzean meza dago ermitan, eta ondoren, alboko Ugarte jatetxean afaria izango da. Arandia anaiak izango dira trikitixarekin.

Bihar, 11:15eko ermitako meza-oren ondoren, toka txapelketa jokatuko da jatetxearen ondoan.



Ekuador eskolan, bertatik bertara

ALEGIA » Oraingoan Alegiko San Juan eskolan Ekuador landu dute. Aurten Ekuadortik etorritako lau ikasle berri dituzte eta haien gurasoen laguntzaz eta ikasleekin beraiekin gehiago dakite lurralde hartaz. Irudian Bona-ba dantza afro-ekuatoriarra dantzatzen. N.URBIZU



Musika eskolako saioa frontoian

AMEZKETA » Amezetako musika eskolako saioa egin zuten atzo. Gero pintxo goxoak eta gaztainak jarri zituzten salgai arratsalde hotzean, eskolari laguntza emateko. Musika eta alaitasuna ez zen falta izan. n.u.

“Natura bezain eraginkorra”



PEUGEOT 308 berria

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com



digital
h

Datorren ostegunean, hilaren 22an,

GARI URANGA

Realeko jokalariairekin elkarriketa digitala. HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.



Bidali aurrez zuen galderak tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbidera. Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahaliko dituzue.

www.tolosaldekohitza.info

txokoa
h

Harpidedun guztien artean,

abenduaren 2an, Liverpoolko Anfield estadioan jokatuko den

Liverpool - Bolton Wanderers futbol partidarako,

bi pertsonentzako hegaldia, bi gauerako hotela eta partidarako sarrera parez zozketatuko ditugu!

Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Irabazlearen izena, azaroaren 25ean argitaratuko dugu.

S Soka motzean

«Zergatik egiten didazu niri elkarrizketa hau?»

UNAI IGARTUA

Langilea

A. IMAZ

Unai Igartua (Ikaztegieta, 1978) herritar euskalduna da, baina ez etxean etzanda geratzen den horietakoa. Hemen ez bada han dago, beti badu zerbait buruan; herri giroari mugak zabal-tzen dizkion horietakoa da.

Zer galdera egingo zenioke zure buruari mementu honetan? Zergatik egiten didazu niri elkarrizketa hau?

Zein da egin dizuten galderarik zailena?

Hauxe bera.

Ez al da absurdoa galdera absurdoak egitea?

Ez. Askotan beharrezkoa da galdera absurdoak egitea zentuzko ondorioetara iristeko.

Ba al du zentzurik, zentzurik ez duenak?

Baietz uste dut. Txistea: zentzurik gabeko mundu batean zentzu bila bizi garela.

Zer da zuretzat herri giroa?

Taberna zulotik atera eta lagun artean ondo pasatzea; jendea aktibatzea ekintza kulturetan parte hartuz, monotoniari aurre eginez.



A. IMAZ

Uztailan 25ean egindako bilkuraren akta atzera bota du Bide Berriak

Leaburu-Txarama » Udal Batzarra egin zen herenegun Leaburu-Txaramako udaletxean hika-mika artean

ASIER IMAZ

Leaburu-Txaramako udal bilkura burutu zuten herenegun. Ordubete inguru iraun zuen batzarrean, eztabaidak eta hika-mikak izan ziren nagusi. Udal bilkurako gaiak giro lasaian onartu baziren ere, eztabaida haseran nagusitu zen.

Herritar ugari aretoan

Herriko batzar aretoan jende ugari bildu zen, alde batetik herritarrik, EAE eta BBren jarraitzaileak,



Herenegun egindako Udal Batzarrean Goñi (EAE) eta Deusto (BB). A. IMAZ

eta bestetik bitaldeko ordezkariak, idazkariarekin mahaian eserita. EAEren jarraitzaileak, *Demokrazioa Zero* eta *Mari Kruz Lapurra*, *Herriaren hitza errespetatu* jar-tzen zuten pankartak zituzten eskuetan.

«Gestora» hitz errepikatuen

Eztabaida EAEk aurkeztutako mozioaren inguruan hasi zen. «Mozioa gai zerrendan sartzeko eskaria azaroaren 5ean egin genuen, baina udal bilkurako gai zerrendan ez sartzeari erabaki zuten Bide Berriak». EAE-ANVK 182.2 artikulua bidez edo gestora bidez, «hauteskundeetan tal-

de bakoitzak jasotako emaitzen araberrako partaidetza» eskatzen zuten mozioaren puntu batean. Gestoraren harira hasi zen hika-mika. Uztailaren 25ean egindako udal bilkuraren aktan, «gestora sortzeko Gipuzkoako Foru Aldundira joateko erabakia agertzen da». Bide Berriak kideek hori euren ez zutela esan eta akta atzera botatzea erabaki zuten. EAEk, «konponbidearen alde daudela esan arren, Bide Berriak gero ez duela ezer egiten» salatu zuen, «egun batean esaten dutena, hurrengoan ukatu egiten dutela» esanaz, «gestora sortzeko hartu zuten erabakia» gogoratu.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa).
Etxebizitza Estrella eraikinean.
Salgai (Tolosa). Garajeak San Frantzisko eta Leidor azpian.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, zentroan.
Alokatzeko (Tolosa).
Etxebizitza, Madalena kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Leaburu bidean). Pabiloi industriaia, Ibarren.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Beti niri jatetxea

Garaian garaiko janariak Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Ibarrak liderraren aurka jokatu du Belabietan

Ibarra » Gipuzkoar derbia jokatu dute gaur 18:30ean Belabietan kiroldegian Ibarra eta Zuzenbide taldeen artean

A. IMAZ

Gipuzkoako Aretto Futbolaren hiriburua bilakatuko da gaur Ibarra. 16:15ean Nazional Jubenilean, Ibarra taldeak Castro Urdiales taldearen aurka jokatu du. Ondoren berriz, maila nagusiko bitalde gipuzkoarren arteko derbia hasiko da, Ibarra FS eta Zuzenbide UPV-Inter taldeen artean. Ibarrrak, azken partidaren erakutsitako «maila eskasa» kontutuan hartuta, sailkapenean gora egin nahi baldin

badute tentuz jokatu beharko dute. Baina ez da erraza izango, Donostiako (Gipuzkoa) Zuzenbide taldeak sailkapenean lehenengo baita, Ibarrari 12 puntu ateratzen dizkiolarik. Hau nahikoa ez eta donostiarrek Ligan ez dute oraindik partidarik galdu. Urrats garrantzitsu bat emateko aukera bikaina izango du beraz, gaur Belabietan Kiroldegian Ibarrrak.

Gipuzkoako arduradunak

Aretto Futboleko Gipuzkoako arduradunak Belabietan kiroldegian bilduko dira gaur arratsaldean derbia ikusi eta gaiaren zati izateko. 18:30ean hasiko den partidak beraz barnetik eta kanpotik partidagarrantzitsu baten itsura izango du.

Laburrak

Sacem-eko zubia itxia egongo da lanen ondorioz

VILLABONA » Udaltzaingoa jakinarazi duenez, azaroaren 19tik, astelehenera, Zizurkilgo Ubarre Auzoan zenbait lan burutu behar dituztenez, Villabonako Legarreta Auzotik (Sacem-eko zubia) Zizurkilera doan errepidea moztuta egongo da, bai ibilgai-luentzako eta baita oinezkoentzako ere.

Kantautoreen Gaua gaur herriko hiru tabernetan

ZIZURKIL » Euskal Kantautoreen Gaua gaur egongo dute herriko hiru tabernetan. 22:00etan Garbiñek joko du Atxulondo Tabernan. 23:15ean Egarri Tabernan Gariren txanda iritsiko da eta azkenik, Pettik Aurrera Tabernan kantatuko du 00:30etik aurrera.

Misiotako Merkatu Txikia abenduaren 16tik 23ra

IBARRA » Ibarrik Misio Taldeak Misiotako Merkatu Txikia antolatu du urteroko moduan, abenduaren 16tik 23ra bitarte. Ibarra plaza ondoan dauden Parrokiko lokaletan jarriko da Merkatu Txikia eta 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik goizetan. Arratsaldean berriz, 17:00etatik 20:30era irekiko ditu ateak eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara.

Osasunari buruzko hitzaldia hilaren 21ean

OREXA » Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioa hilaren 21ean izango da, 18:00etan Orexako Udaletxeko Ganbaran.

Uzturpe Ikastolak Urteko Batzarra egongo du

IBARRA » Uzturpe Ikastolak urteko ohiko batzarra antolatu du. Jokin Zugasti zuzendaririk bertara agertzeko deialdia luzatu du; «2007-2008 ikasturteari dagokion batzarra dela eta, guraso eta langile guztiori, Ikastolako Errektore Kontseiluak dei egiten dizue, azaroaren 21ean, asteazkenean, 20:00etan Ikastolako Aretto Nagusian ospatuko dugun Batzarrean».

Mahai Tenisa eta gaztain jatea bihar Gaztetxean

IBARRA » Gaztetxeak antolatutako Kultur Astearen barnean, bihar 16:30ean Mahai Tenis Txapelketa jokatu dute. Ondoren, Gaztetxe kanpokaldean gaztain-jatea egongo dute. XVI. urteurrena ospatzeko antolatutako Kultur Asteak azaroaren 21ean, asteazkenean, jarraituko du. 19:00etan hitzaldia antolatu dute *Drogak larrugorritan* gaia aztertuko delarik bertan, As-kagintzaren eskutik.

Bikotekako Urrezko Aizkora martxan

AIZKORA » Bikotekako Urrezko Aizkolarien Txapelketa aurkeztu dute. 12 bikotek hartuko dute parte eta aizkolarik bikotek lau multzotan banatuak egongo dira sailkapen fasean. Multzo bakoitzean hiru bikote egongo dira eta lehen biak final-laurdenetarako sailkatuko dira. Bi eskualdeetako aizkolariek dagokinez, Ibarra Mujikak Olsagastirekin hartuko du parte. Otañok Lasarekin; Arrospide leaburuarrak Zubigandekin eta Leizteko Jon Rekondok Mujigarekin.

Z Zurea da hitza info



Olarraingo aparkalekua konpondu!

HIRIGINTZA • Tolosako biztanle bat naiz, eta egunero Goierriko lantegi batera joaten naiz lanera. Nirekin batera ari dira lanean inguruko zenbait lagun, hori dela eta, denak auto berean joaten gara lantokira. Ohikoa dugunez, goizero Benta Haundiko aparkalekuan geratzen gara. Bakoitzak bere autoa bertan uzten du, eta txandakatuz, denak batera autoetako batean joaten gara. la egunero elkartzan garenean, ahotan gauza berdina dugula sartzen gara bestearen autora. Aparkaleku hau gero eta okerrago dago! «Zu-

loak saihesten saiatzen banaiz ere, beti baten batean sartzen naiz» Lotsagarria iruditzen zait aparkaleku honen egoera. Egunero, hainbat eta hainbat lagunek uzten dute hor autoa, horrez gain, jende asko igarotzen da hortik oinez eta uste dut, badela garaia hau konpontzeko. Ez dakit zehazki zenbat kostako den aparkaleku horretan brea botatzea, baina Tolosako Udalaren aurrekontuetan eragin handiegirik ez duela izango iruditzen zait. Horregatik, behin eta berriz eskatzen dut aparkaleku konpontzeko. JON MARTIN

Asturisko Sella ibaia izango da Carlos Peñaren abentura berria

Kirola » Alemaniako Constanza lakuan 63 kilometro egin eta gero, Sellaren jeitsiera burutuko du zazpigarren aldiz



Carlos Peña, iaz, Sella ibaian eginiko proban. HITZA

HARRIET BELLOSO

Carlos Peña igerilari tolosarra helburu berri batekin dator. Oraingo honetan Asturiasera joan da abenturen bila. Irailean Alemaniako Constanza lakuan 63 kilometro egin zituen igerian bizkarrez, ohikoa duen bezala, eta orain Sella ibaiaren jeitsiera egingo du zazpigarren aldiz.

Arriondaseko zubian hasiko da eta 19 kilometro igeriz egin eta gero Ribadesella kostako herrira iritsiko da. Egun batean egiteko asmoa du Carlosek.

Urteko garai honetan uraren

temperatura oso hotza izaten da, eta horretaz gain, klima ezaugarri gogorrek jasan beharko ditu bizkarreko igeriketa modalitatean espeziilista dela erakutsi duen abenturazale tolosarrak.

Espedizio honetan Carlos Pe-

ñak lau piraguisten laguntza izango du. Juanjo Etxarte, Iñigo Agirrezabala, Jesus Ramirez nafarra eta German Garcia de Gurtubai bizkaitarra bere ondoan izango dira bidai guztian zehar erronka berri honetan.

Haur jaialdia inauteri txikienguruan

Kultura » Ohitura den bezala Aiz Orratz elkarteak antolatuko du Inauterietan egiten den Haur Danborrada

H. BELLOSO

Datorren urteko Inauterietako Haurren Danborrada dela eta, Aiz Orratz elkarteak jaialdi bat antolatu du. Urtarrilaren 26ean eta Leidor aretoan izango da.

Merienda eta zenbait opari emango dira, eta umeentzako ikuskizun politak eskainiko dituzte baita ere. 1.000-1.200 haur inguru bilduko dira jaialdian. Haurren mozorro lehiaketa bat egongo da baita ere. Bertan 100en bat lagunek hartuko dute parte eta bide batez Tolosako Inauterietako Haurren Ordezkariek hautatuko dira.

Otsailaren 2an izango da Haurren Danborrada. 2008an 500 haur baino gehiago parte hartzea espero dute.

Asteasuko Udakiola baserria guztiz erreta, sute baten ondorioz

Gertaerak » Bertan bizi diren bost kideek ez dute kalterik jasan; ezta animaliek ere; aurtien erre den hirugarren baserria da

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udakiola baserria guztiz erre zen atzo arratsaldean, sute batengatik. Bost lagun bizi dira bertan, eta sutearen ondorioz ez zuten kalterik jaso, ez beraiek, ez eta bertan dituzten animaliek ere.

17:30ak aldera piztu zen sua antza tximinian. 18:00etarako agertu ziren suhiltzaileak eta Ertzaintzaren agenteak. Sutea sortu zen unean, familiako lau kide zeuden, eta auzokideek lagundu zieten animaliak ateratzen, gehien bat ardiak. Bai familia, bai eta baserriko animaliak inguruan dagoen Bulano baserrian hartu zituzten.

Dagoeneko azken urtean Asteasun erre den hirugarren baserria da. 2006ko urrian Arretxe baserria erre zen, eta 2007ko urtarrilean, Iturralde baserria.

Laburrak

Milagrosaren Bederatziruareneko mezak

TOLOSA • Azaroaren 19tik 27ra izango da Milagrosaren Bederatziruareneko meza bereziki aurtengoa. Horrekin batera, lurramendiko egoitzan dagoen mirarien birjinaren kaperan meza bereziki ospatuko dituzte. Asteazken 08:00etan izango dira mezak, eta jai egunetan, berriz, 09:00etan. Arratsaldetan, berriz, 16:30ean izango dira.

Titirijai 07ko sarrerak etzi jarriko dituzte salgai

TOLOSA • Etzi jarriko dituzte salgai aurtengo Nazioarteko Txotxongilo Jaialdirako txartelak eta abonoak. Hauek Tolosako Ekinbide Etxeko egoitzan eskuratu ahaliko dira. 7,5 euro ordaindu beharko dira sarre- bakoitzeko eta abonoa eskuratzeko, berriz, 25 euro. Titirijai 07 azaroaren 24tik abenduren 2ra arte izango da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Babarrun azoka Triangulo plazan 9:00etatik 14:00etara; 11:00etan txapela jartzearen lehiaketa Txinparta elkartean; 12:00etan babarrun eta sagardo dastaketa Trianguloan; anaiartzeko bazkaria Casino elkartean 14:00etan.

Deialdiak

■ **Bedaio.** Mus txapelketa 16:30ean Artubi elkartean; 19:30ean toka txapelketa; eta 21:00etan gaztain kantu afaria.

Kultur asteak

■ **Berastegi.** 16:00etan mus txapelketaren finala; 17:00etan Zergatik bizi da txanogorritxoren amona basoan? txotxongilo emanaldia Muñagorri eskolan; ondoren txokolatete jatea Urepelen; 22:00etan euskal zinema Muñagorri.
■ **Amezketza.** Euskal Makil borrokari buruz ariko dira balioantzeko gelan 18:30ean.
■ **Ikaztegieta.** Zelanda Berria ikusentzunezkoa kiroldegian 20:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** Euskal Kantautoreen Gaua, Zizurkilenez ez ta festa! zikloaren baitan. Garbiñe 22:00etan Atxulondon. Gari 23:15ean Egarrin eta Petti 00:30ean Aurreran.
■ **Tolosa.** Vice president eta Moksha Bonberenean 22:30ean

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.
■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

Ederrenen artean ederrenak



Tolargik eta Tolosagasaki antolatutako 2008ko egutegiaren finalistak, atzo udaletxean eginiko sari banaketan. I. T.

A Agurrak



Zorionak!

Juan Bautista eta Manuela.

Diamantezko ezteiak. Lizartzan ezkondu ziren 1947/11/15. Zorionak zuen seme-alabak eta iloben partetik ondo ospatu larunbatean.



Maidier Gaztelumendiren argazkia izan da irabazlea. I. TERRADILLOS

Tolosa » Tolargi eta Tolosagasaki antolatutako argazki lehiaketaren sariak banatu dituzte; Maidier Gaztelumendi da irabazlea

ERREDAKZIOA

Antolatzaileek jasotako 1.200 argazkiren artean ederrena Maidier Gaztelumendirena izan dela ebazti dute epaileek. Hala, Tolargik eta Tolosagasaki hurrengo urteko egutegia osatzeko antolatzen duten lehiaketari esker, doan jasoko du argia eta gasa tolosarrak.

Atzo banatu zituzten sariak udaletxeko pleno aretoan, irabazlearen artean. Guztira 13 argazkilari saritu dituzte, Gaztelumendirena azalean eta gainontzekoak hilaibetez hilaibete. Hauek izan dira 12 finalistak: Idoia Zabaleta, Migel Uranga, Miren Atxaga, Migel Cortes, Jose Antonio Abaigar, Iker Gerreñu, Asun Prada, Diego Consuegra, Rafael Civico, Nekane Eizagurre eta Ion Azpiroz eta Xabier Zerberio.

Egutegia eskuratzeko

Hil honen 19, 20 eta 21ean (astelehena, asteartea eta asteazkena) Zerkausian postu bat atonduko dute, bertan egutegia eskuratu ahal izateko. Horrekin batera, aurrerago, Tolargik eta Tolosagasaki ere eskuragarri jarriko dituzte egutegiak euren bulegoetan.

2009koan, Tolosako jaiak

2009. urteko egutegira begira gaia dagoeneko pentsatu dute; hala, Tolosako jaiak isladatu beharko dituzte parte-hartzaileek. Berrikuntzen artean, antolatzaileek aurrerago bi irabazle epaile bezala aritzea proposatu dute.

Foto
Depilazioa

Azkenik
bukatu da
ilearen arazoa

Besape + Itzondo Abonua
5 sesioak
(11 egunetan)
750€

Besape Abonua
5 sesioak
(11 egunetan)
300€

Itzondo Abonua
5 sesioak
(11 egunetan)
475€

Shuyana Edergintza
Jardina Edergintza N° 217A
Tolosa
Tel: 943 67 04 88

Eskeintza balokoa abonua
harta 19/11/07-ik 1/12/07-ra

